

A. IBILBIDE KULTURALA

Uliako paisaian zehar dihoan ibilbide kultural erraz honen bitartez, bertoko bizilagunik adierazgarrienak eta haitzen ezaugarriak ezagutu ahal izango ditugu, eta denboran atzera egingo dugu Donostiako leku harrigarri honi eman zaizkion erabilerak ezagutzeko.



- | | | |
|--------------------------|------------------------|---------------------------------|
| 1. Interpretazio-zentroa | 4. Bale-haitza | 7. Antzinako tranbia elektrikoa |
| 2. Erregearen Haitza | 5. Chalet de las Peñas | 8. Monte Ulía jatetxea |
| 3. Merenderoa | 6. Iturria | 9. Uliako Transbordadorea |

Aparkalekutik abiatuta, basotik gora egingo dugu balizajeko marka berdeak eta zuriak jarraituz; **Uliako Interpretazio-zentroaren (1)** . ondotik pasako gara. Gora iristerakoan, kostalderantz dihoan bidexka hartuko dugu, Donostiako norabidea duen geziak markatzen du (3 km). Gure ezkerretara **Erregearen Haitza (2)** dago; hura inguratuko dugu, eta gailurrean dagoen begiratokira iristen lagunduko digun pasagunera ailegatuko gara. Bertatik itsasoa, Jaizkibel mendia eta, zerua garbi dagoenean, Bidasoatik haratago dauden itsaslabarrak ikusiko ditugu.

Erregearen Haitzetik jaisterakoan bidexkatik jarraituko dugu eta **Merenderoaren (3)**. aurretik pasako gara. Eraikin horrek ez du beti funtzio bera izan, XX. mende hasieran Basollua ehiztari eta arrantzaleen Elkarte hartu baitzuen; hasieran aurrean duen zelai berdea uso-tirorako zelaia izan zen, eta plater-tirorako ondoren. Hori ez zen, baina, inguru horretan aisialdirako zegoen gune bakarra, Belle époque deritzonengan, 1902. eta 1914. urteen artean Uliá hiriko atsedeenleku nagusia zen-eta.

Bidexkatik jarraituz basoan sartuko gara. Bertan habitat horretan ohikoak diren hainbat espezie, haritza (*Quercus robur*) edo ametza (*Quercus pirenaica*), parke eta lorategietan izaten diren beste batzuekin bizi dira, hala nola tuliparbola (*Liriodendron tulipifera* L.) edo likidanbarrak (*Liquidambar styraciflua*); horrek gogoratzen digu Uliak donostiarrentzat aisialdiko gune moduan izan duen erabilera.

Pixka bat aurrerago **Bale-haitza (4)** . aurkituko dugu. Izen berezi horrek X. edo XII. menderaino eramango gaitu, haitz horiek talaia gisa erabiltzen zirenean, euskal balea (*Eubalaena glacialis*) ikusteko, ugalgaraian ohikoa zelako Kantauri itsasoan. Bertatik, talaiariak arrantzaleak ohartarazten zituzten sua piztuz, eta balea harrapatzera irteten ziren portutik. Geroago, Belle époque-n, haitz hau behatoki gisa erabili zen, haren ingurukoak bezalaxe. Haitz guzti horiek hareharri horiz daude osatuak, eta itsaso sakonean sortu ziren orain dela 40 bat milioi urte. Euriak eta haizeak higatu dituzte, itxura bitxia duten hutsuneak sortuz.

Bidexka honen amaieran, planta oktagonala duen eraikin bitxi baten hondarrak aurkituko ditugu, errota bezala ezagutzen dena. **Chalet de las Peñas (5)** edo baserri-etxea izena zuen kafetegia izan zen, eta XX. mende hasieran egurrezko terrazaz goratu handi batez inguratua zegoen.

Behin puntu honetan, metro batzuk egingo dugu aurrera errepidetik, aparkalekura iritsi arte, eta bertatik, asfaltoa alde batera utzita, magnolia (*Magnolia grandiflora*), gorosti (*Quercus ilex*) eta gerizpe-platanoen (*Platanus hispanica*) lorategi batetik jaitsiko gara **iturri (6)** bateraino, eta iturri horren aldamenean aurkituko dugu Santiago bidearen seinaleetako bat; hurrengo tartean horri jarraituko diogu. Ibarbide honetan ohikoa da krokosmia (*Crocsmia spp.*) izeneko landare apaingarria; udan mendi-mazela lore gorri deigarritz estaltzen du. Gure bisita udazkenean egiten badugu, mendi-mazela azafrai faltsua (*Crocus nudifolius*) landareak zipriztinduta ikusiko dugu.

Jaitsiera honen amaieran parez pare aurkituko dugu **antzinako Tranbia elektrikoaren (7)** bidea; Ategorrietatik igotzen zituen donostiarrak XX. mende hasieran Uliaren gailurrean zegoen aisi-gunera. Ezkerrarantz hartuko dugu eta arreta jartzen badugu tranbiaren linea elektrikoaren zutoinak sartzen zituzten hormigoizko oinarriak ikusi ahal izango ditugu, mugikortasun ez kutsatzaileari dagokionez aitzindaria. Pixka bat aurrerago hormatxo batek geralekua izandakoaren hondarretaraino trazatzen du ibilbidea, Uliako Udal-aterpetxetik gertu.

Baina hau ez da ez tranbiaren ez gure ibilbidearen amaiera. Aurrerantz jotzen badugu tranbiaren azken geltokia eta luxuzko **Monte Ulia (8)** jatetxea elkartzen zituzten eskailerekin egingo dugu topo. Jatetxearen zimenduak eta egituraren zatiak gelditzen dira oraindik ere.

Igoera jatetxearen ezkerretatik abiatzen den bide txiki batetik hasiko dugu, zuhaitz artean; pistarik zabalena ezkerretatik utziko dugu eta **Uliako Transbordadorearen (9)** irteera-estazioaren azarnak aurkituko ditugu, merendero txiki baten ondoan. Aire-transbordadore hori, kableetatik zintzilik dagoen otar antzekoa, Torres Quevedo ingeniariak diseinatu zuen eta puntu horretatik Uliak gainera dauden 280 metroak elkartzen zituen; gaur egun haren dorretxoaren hormigoizko euskarriak ikus ditzakegu, ume-parkearen ondoan.

Bertatik, atzean utzi dugun pistari helduko diogu berriz ere, eta **aparkalekuan** amaituko dugu.